

INAUTERIAK 2022

KARTEL LEHIAKETA

GETARIA

Oinarri-arauak

- **Getariarrei zuzendua. Adin guztietako herritarrek har dezakete parte.**
- **GAIA: Getaria eta inauteriak.**
Derrigorrezko testua, "GETARIAKO INAUTERIAK 2022" ... **goiburu batekin.**
***Goiburua egileak berak idatzi beharko du, idazten ez dakiten haur txikien kasuan, ezer ez jarri edo beren erara egin beharko du, heldu baten esku-hartzerik gabe.
- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake.
- Lanak edozein modalitate artistikoan egin daitezke.
***16 urtera artekoen lanek eskuz eginak izan beharko dute.
- Kartelak A3 neurrian aurkeztuko dira.
- Parte-hartzailearen identifikazio-datuak adierazi behar dira: egilea, telefono-zenbakia, adina, eta gutun-azal batean sartu behar dira, kartelaren izenburu edo goiburu berberarekin.
- Lanak egileen sinadurarik gabe aurkeztuko dira
- **Lanak aurkezteko azken eguna: OTSAILAK 14, 19:00ak arte.**
Lekua: udaletxean edo liburutegian. Epez kanpo ez da lanik onartuko
- Epaimahaia, Kultura Batzordeak, herriko artistek eta herri eskolako irakasleek osatuko dute, besteak beste. Erabakia lanak entregatzen diren astean bertan hartuko da.
- Kartel irabazleak Udalaren esku geratuko dira, eta aurkeztutako lan guztien argitarapen eskubideak izango ditu.
- Mailak eta sariak:
 - 2-5 urte bitartekoentzat: OPARIA
 - 1. mailatik 3. mailara: OPARIA
 - 4. mailatik 6. mailara: OPARIA
 - 12-15 urteko gazteak: 60 €
 - 16 urtetik gorakoentzat ... helduak: 150 €
- **Kartelak ikusgai jarriko dira Udaletxeko sarrera nagusian, otsailaren 21etik 28ra.**
- Irabazi ez duten kartelak erakusketa itxi eta hurrengo hamabost egunen barnean jasoko dira.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri edo baldintza hauek osorik onartzen direla esan nahi du.

